

## Alex Txikon tontorrera bidean edizinoa zarratukeran

10. orrialdea

## Korrika Kulturalaren ekintzak

Korrika kulturalaren barruan sei ekitaldi dagoz aurreikusita. Martiaren 19an, sanjoseetako bertso saioa Igorren; 25ean, poesia emonaldia Lemoan; 26an, Urrekoatxara mendi ibilaldia Zeanuritik; apirilaren 2an, sagardotegira urteerea; 9an, Korrika bazkaria Igorren eta 15ean, Korrika Txiki Lemoatik Zeanurira eta jaia arrastian bertan. 12. orrialdea



TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 139

2011ko martiaren 16a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Ruper Lekuek ekarriko dau herri musikea BEGITURA

Orain arte, BEGITU aldizkariko "Geure Berbategie" saila Arratiako herri musikea erakutsiko dauan saila bihurtuko da.

**H**or agertuko diran kantak Ruper Lekuek orain 30 urte inguru baserri batu zituanak dira. Datorren ikasturtean, Musika Eskolearen 25. urteurrenean, bilduma baten jasoko ditu kantak eta Zertu Kultur Elkartearen laguntzagaz argitaratuko ditu.

Ruper Lekue izango da seguru asko, Arratiako musikaren ganean gehien dakiana. Izan be, Luis Iruariza-

ga Abesbatza, Areatzako Banda eta Arratiako Musika Eskolearen sortzaileetakoa da. Gasteizko konserbatorioan orkestra irakasle egon zan zazpi urtez eta orain Zornotzako Musika Eskolan dago zuzendari. Ganera, gaztetan, Axlor musika taldean jotzen eban eta musika irakaskuntzan eta ikerkuntzan esperientzia handikoa da. Txistua, akordeoia, pianoa eta organoa jotzen dituala aitortu deusku maisu igorreztarrak. 8. eta 9. orrialdeak



Ruper Lekue.

### ARRATIA

## Goi tensinoko linea Arratia eta Zeberiotik

Abiadura Handiko Trenaren energia beharrak asetzeko goi tensinoko (400 kilowatteko) argindar linea bat egin gura dau REEK Bizkaia eta Gipuzkoa artean. Linea hau, Zeberio, Bedia, Igorre eta Lemoatik pasauko litzateke. Espainiako Aldizkari Ofizialak argitaratu dau baimen eskaria eta zabalik dago alegazinoak egiteko epea. 7. orrialdea



### IGORRE

## Agirre Lehendakarirako proiektua

Maketa bat, planoak eta alkatearen azalpenen bidez jakin dogu Agirre Lehendakaria kalearen proiektuaren barri. Proiektu honen arabera, Igorre guztiz aldatuko da, erdigunea jentearentzat eta aisialdirako izango da eta. Aldaketa egiteko legegintzaldi bi eta sei bat miloe euro beharko dirala uste dau Galder Olibares Igorreko alkateak. 5. orrialdea

### ARRATIA

## Emakumearen Eguneko inguruak

Martiaren 8aren inguruko ekitaldiak jarraituten dabe gurean. Emakumearen egunean konzentrazioa egin zan Igorren eta 13an, I. Emakumeen Martxa Gorbeira izan zan. Datorren hamabostaldian egitarau honen barruan, sexualidadearen ganeko tailerra, berbaldia eta antzerkia egongo dira Igorren. 7. orrialdea

**ARRATIA**  
ZERBITZU INMOBILIARIOAK  
*Diman etxe barriak*



Dima erdian.

Leku pribilegiatuan. Oso eguzkitsua.

2011ko urtean zehar hasiko gara eraikitzen.

2 eta 3 gelako etxebizitzak bainugela bigaz.

Garajeak eta trastelekuak.

Hurbildu zaituz Igorreko Arratia Inmobiliariara eta informazioa emongo deusugu.

## GEURE BERBATEGIE

## 'Geure Berbategie'

JUANTXU REKALDE  
ANGEL LARREAARRATIAKO HIZTEGIAREN  
BIGARREN ARGITALPENA

Zutabe honetan zabaldu zan moduan, "Geure Berbategie" proiektu barruko Hiztegia argitaratu zana agortuta dago jada. Eta bigarren argitalpena egiteko ahaleginak bideratuta be bai honezkero. Berrargitalpenaren hasieran, barriro be betiko arazoagaz egin genduan topo: dirua. Zelan argitaratu ahal da liburu bat 27 eurotan jakinda banatzai-leak % 50 eroaten dabela eta

liburu bakoaren kostea, 1000 ale saldua, 15 eurokoa dala? Ezinezkoa da laguntza publiko barik. Horrexegaitik joan ginan laguntza eske, Arratiako Udalen Mankomunitatearengana eta Bizkaiko Foru Aldundiarengana (Kultura Sailera), eta jaso be erantzun ezin hobea jaso genduan. Horrerik esker, inprentan egosten daragoio une honetan bertan.

Behin bigarren argitalpen bat egin behar izan ezker, pentsau genduan, aurkitutako hutsak konpondu egin beharko litzatekeez, ezta? Esate baterako, txirri-txirriaren argazkia (ez da txirri-

txirria).

Tarte horretan baina, hainbat eta hainbat berba barri topau dogu eta argitaratzea be merezi dauelakoan gagoz. Ordurik hona jaso doguzan esamolde edo berba barriak 140 inguru dira. Horregaitik liburu barriaren azalean, Bigarren argitalpena, zuzendua eta osotua, idatzita joango da.

Paperezko edizino barria mar-txan dago. Holan, Arratiako Hiztegiak izango dau bai orandino heldu ez dan hainbat lekutara ailegetako aukerea. Besteak beste, Euskal Herriko hainbat liburutegitara, ELKAR banatzailearenak ez diran hainbat dendatara,

datorren urteko Durangoko liburu azokara eta abar. Jaiobarria izanik, ez da arean zirkulaziotik desagertuko. Horixe da behintzat gure borondatea.

Irakurri dozuzan lerro honeek dira, irakurle, txoko honetan irakurriko dozun azkenak. Ia urte bi izan dira leihon honetan idazten dihardugula hutsik egin barik. Gure ardurak, ilusinoak, ametsak eta beste hainbat kontu argitara emoteko aukerea izan da. Amaitzeko, BEGITU Aldizkariari eta zuri, irakurle, eskerrak emotea besterik ez jaku geratzen.

Izango dira aurrerantzean be alkar ikusteko aukerak hemen ez

bada beste ingurumairen baten, jakina.



## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112Guardiako Farmaziak  
Martiazen 14tik 20raVargas. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 696 782 189

## Martiazen 21etik 27ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

## Martiazen 28tik apirilaren 3ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

## Apirilaren 4tik 10era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

## Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

## Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

## Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

## Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

## Parketxea

94 673 92 79

## Abertzaletasunaren Museoa

94 631 72 51

## Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

## Gazte Informazio Bulegoa

94 673 62 51 eta 639 018 133

## Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

## Trenak

Euskotren 902 543 210

## Bizkaibus\* 902 222 265

## Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

## Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00. Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45. Zapatuetan ez dago 05:45eko. Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

## Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean. Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

## La Union\* 94 427 11 11

## Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

## Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefona: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Maialen Egileor, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.400 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

## Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoaBizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

bbk

## ZEURE BERBEA

### Euskerearen herria galapan

Euskal Herria izenak berak dino euskerearen herria dala. Hainbat urtetan jasandako zapalkuntzea eta debeku guztien ganetik aurrera urtetan jakin dauan hizkuntzea dogu euskerea, momentu latzenetan be euskaldun askok transmisioa etenbarik mantenidu dabelako bizirik dirauana. Euskaldun sentiduten danak bihotzetik agora eroaten dau euskerea eta AEK-k euskaldun sentidu baina euskeraz jakin ez dauan guztiari euskerea agora eroaten lagundu deusan erakundea izan da, eta gaur egun, oztopoak oztopo, helburu beragaz beharrean dabilana.

Euskal Herria euskerearen herria dala zabaltzeko ekimena dogu Korrika eta aurten euskaldun guztiak euskalari izatera konbidatuten gaituana. Besteak beste, euskeraz sentidu, ikasi, pentsau, maitatu eta bizi dana da eta euskalalaria. Hori dala eta, Korrika guretik egun zehatz baten pasau arren, apirilaren 16ko goizaldean hain zuzen, lekukoa egunero pasa behar deusagu alkarrerri. Euskalalaria izateko beharrezkoa dan gauza bakarra, belaualdiz belaualdi mantenidu dan transmisioari eustea da, holan, gure ondoren-

goak euskerea ezagutzeko aukerea be izan daien.

Euskal Herri osoa, euskerearen herri osoa, zeharkatzen dau Korrikak. Baina, Korrika ez da lasterketa simple bat, Korrika hori baino askoz be gehiago da. Korrikagaz batera hainbat ekintza kultural antolatuten ditue, Udal, kultur eta kirol alkarte desbardinak eta bertan parte hartzeako ez da askorik behar, AEK-ko arduradunak hartu-emonetan ipini eta kultur ekintza bat proposatutea baino ez da. Eta honeri esker kultura euskalduntzeaz gan euskalari danari euskeraz biziteko modu desbardinak be sortzean deusaguz egunero euskeraz biziteko aukerak erraztuz.

Euskal Herri osoan zehar milaka koloretako jentek parte hartzean dau Korrikan: jantzariak, bertsolariak, futbolariak, musikariak, txistulariak, aizkolariak... euskalariak. Lasterketan parte hartzea bertara joan eta galapan egiten hastea da, baina, galapan egiteaz gan Euskal Herria eskurik esku zeharkatzen dauan lekukoa be eroateko aukerea edonork daukala esan behar dogu. Edozein, norbanako zein alkarte, konbidauta dago eta kilometroa erosi eta lekukoa bihotzetik zerura altxatera.

**MIREN MADARIAGA  
AEK-KO IRAKASLEA**

## ERETXIA

### Pupu eta Lore

**B**ada hilabete eta erdi Pirritx, Porrotx eta Marimotsek Igorren Pupu eta Lore aurkeztu euskuenetik. Orduan ez neban txikitxu bie ondo etorria emoteko aukerarik izan, baina jente andana bildu zala esan deusta txoritxu batek. Zein poza barreen klubak kide barri bi dituala jakiteak!

Pupu eta Loreren amaxu Pirritx da eta aitaxu biologikoa ez dakigu nor dan. Porrotxek sekulako ahaleginak egiten ditu ume-txuak jagoten: eurekaz olgetan dau, jaten emoten deutse... Marimotsek be sarritan hartzean dau bere gan bikien ardurea. Pupu eta Loreren etorrereagaz familia eredu barrien inguruko hausnarketea egitera konbidatuten gaitue gure lagunak. Izan be, gero eta gehiago dira eta, gure artean aitaxurik ez daben haurrak, amaxu edo aitaxu bi dituenak, amaxu edo aitaxu bera ez daben anai-arrebak, aitaxu edota amaxu urrun dituenak, hemengo amaxu eta aitaxuak izanda beste herrialde baten jai diranak... Zenbat konbinazio desbardin! Familia *tutti-fruttia* dirudi honek!

Familiaren ganean berba egitean ostera, eredu bakarra defendiduten dabe askok: amaxu, aitaxu eta seme-alabez osatua. Baina zelan izango dogu bada alkar-hartuemonetarako eredu bakarra bata bestearengandik



### MATXALEN LEGARRETA

EHUko Soziologia irakaslea

hain desbardinak bagara? Sagarak, madariak, platanoak... hainbat fruta eskuragarri izanda, zergaitik aukeratu beti konbinazino bakarra mazedonia egiteko?

Aztera begiratuten badogu ganera, konturatuko gara barritzat jotzen doguzan familia eredu asko ez dirala hain barriak: seme-alabak eta guraso bakarrez osatuak, kasu. Eta tradizionaltzat edo betikotzat jotzen doguzan ez dirala hain aspaldikoak. Maitasun erromantikoan oinarritutako hartu-emonak esaterako, XIX. gizaldi amaiera arte ez dira orokortzen European. Eta ez hori bakarrik, beste herrialde batzuetan bikoteak eta bikote-hartuemonak beste eratako maitasuna daukie oinarri.

Ez zenkiela pelikuletan, nobeletan, abestietan... gorai patzen diran maitatzeko moduak eta maitasun praktikak unibersalak ez diranik? Katxiporreta!

Pirritx, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lorek erakutsi deuskuen moduan, familia ereduak ugariak dira. Sortu eta birsortu egiten dira etenbarik, jentarte behin eta barritz sortu eta birsortzen dan moduan. Eta esker-rak. Aukeran beti sagarra edo madaria edo platanoa baino ez bagendu, zein aspergarria izango litzatekean frutea jatea! Besteakanako eta norbere buruarenganako onarpen eta errespetuan oinarritutako jentarte plurala maite dogu. Familia *tutti-fruttia* maite dogu!

Berandutxu nabil, badakit, baina ondo etorri Pupu eta Lore!!

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

L. Agirre, 7.  
48100 Ijorrotz (Bizkaia) Tfnoa: 94 622 64 23

**GARANTXE Autoeskola**

TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ

Balantziak A1, A, BTR, B

Lohandikuri Agirre 35  
Tfnoa: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
[garantxe@mozkalnet.net](mailto:garantxe@mozkalnet.net)

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA**

Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak

Juan de Auriagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**BIXER TABERNA**

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

ALKOHOLIKO ANONIMOAK

**ARRATIAKO TALDEA**

Arazoak alkoholagaz?  
Arazoak badaukazuz,  
lagundu ahal zaitugu

**Igorre**

BATZAR EGUNAK: eguneroak 20etatik 22etara  
Udaltzako arlopetan  
EPA-ko lokalak

KONTAKTATZEO TELEFONOAK:  
690 139 044

**Erreka Garraioak**

Mugikorra 629 465 335

Barritz auzoa, 12 LEBON  
Tfnoa: 94 631 50 82 Faxa: 94 631 51 81

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

**San Miguel**

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (igorre)

*Los Chopos*

neurritza egindako armairuak

Auda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel: 94 430 40 94

**Esposizinoa eta fabrikea Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
[www.armariosloschopos.com](http://www.armariosloschopos.com)

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DERU KONTUTAN  
ONDARIN HEGEZINEN  
ASIGURUTAN

Balboa Auzoa, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

## LUMATUTEN


**BENJAMIN  
AURREKOETXEA**

## "Tinín"

**I**zan eta badira gure herrian personaje kurioso eta xelebre asko. Izan dira asko, lehengo bizimoduak holango personajeak agertzeko aukera parebakoa emoten ebalako; eta badira oraindino, pasa dan bizimoduaren usainagaz, egun tipoa sendo daukienak. Esan leiteke denporea arin doala eta arinago ahazten garala iraganaz; baina hareek doguz oraindino aurreko gizakiaren eredu.

Gure herriko "Tinín", nire kintoa dana, gizona egiten hasia zan; besteak beste, garaia, sendoa eta ausarta zan.

"Tinín" gatxizena, Andrakazen zerrategian alkarregaz beharren hainbat urtetan ibilitako eta luzaroan gure herriko alkatea izan dan Etxebak ipini eutsan.

Gazteak eukan indar eta ausardiagaz gehiegikeriak egiten bae-

bazan be, sekula ez eban makalik jotzen. Futbolearen nabarmen-tzen zan eta aurrelari zein atzelari lez, inork ez eukalako paparrik berari hankea sartzeako, onena zan.

Negu baten herrian luzaroan berba egin zan egundokoa egin eban mutilak. Izan be urte hare-tako negua edurtze itzelak egin ebazanekoa izan zan; halango edurtze baten, garrirainokoa, bideak luzaro geratu ziran itxita. Edurtzeagaitik bakarrik ez, zugatz eta zugaxka guztiak edurraren pisuagaitik bidera jausita gelditu ziran eta horrek jakina bideok ibil-tezinezkoak bihurtu ebazan.

Egoereak ez eban "Tinín" kildu eta eginbeharra ebanez eragozpen guztiak gaintduta Mañarira joan zan. Barriro etorri zanean, han aurkitutako Igorreko San kristobaleko bategaz agertu zan. Inunganetik etozela mantso-tu bako basa-zekor batek euren kontra egin eban.

Ez ziran horraitio mutilok ar-tegatu, ze biak be buztarrirako modukoak ziran, eta pentsau eta egin, zekor gaztea makilakadaka hil eben; bertan sangrau, barruak, narrua eta burua kendu eta batak erdia eta besteak beste erdia le-poan hartuta, herriko aintzagarri-na biltzen zan Ubidanean agertu ziran. Morroskoa, irribarrez, neka-neka eginda eta basa-zekorragaz heldu zanean, han ziranak, agora zer eroango gauza asko ez ebe-lako eukingo be, heroi lez hartu eben eta batzuk lagunduta, ho-tza kenduteko, inozko mozkorrik handiena harrapatu ei eben.

## EGI BATZUEK AIXETARATZEN


**IRATI BERNAOLA**
**Gaia jarrita: "Lurrarinek  
Gazte Asanblada"**
**1**

Gazte asanblada sortu zan eta egin dogu urtebete herrie eraikiz eiten dogu lan eta hortan gauz jo ta ke autogestioz aurrera goaz ez gagoz inoren menpe animau eta hurbildu zaitez sentidu ezkeroko gazte.

**2**

Lurrarinentzat punto gogorra dekogu apirilak bi joku, kontzertu, giro ederra poteo eta bazkari herriitik zehar joango gara umorez eta kantari sarrerak salgai egongo dire egon zatezie adi.

**3**

Gazteen aurkako errepresiorik egongo ez balitz hobeto langabezia, etxebizitza, prekarietatea tarteko gazteori be kalte iten dosku esan behar da, hasteko merezi dauen gauze asko dauz gurekin borrokatzeko.

**4**

Ilusioz ibiltzen gabela behintzet aitortu beharko ta gazte gehiau hurbildu ezkeroko hartuko doguz edarto gure ametsak beteko doguz eginez lana asko ta asko gazte borrokoz ta antolakuntzaz posible izingo dalako.



## BEGI TXINDORRA

**Z**ugatz eguna ospatzen gabiz egunotan. Baina zugatzai begir-tutea baino ez dago konturatzeko ez doguzala bardin tratetan zugatz batzuk eta beste batzuk. Honeen artean be mailak dagoz antza.

Platanoa da txartoen tratetan dogunetako bat. Akaso, ebatzi gen-dualako gure kaleak eta plazak apaintzeko aproposa zala. Horixe izan da bere kondena. Izan be, harrezkeroztik geure neurriera mol-datuteko, hau da, gehiegi ez hazteko eta erramak guk gura dogun lekuan keriza emoteko, ebagi baino gehiago mutilau egiten doguz askotan platanoak, berez 40 metroko altuerea eta adaburu biribila daukien arbol eder honeek. Neurriratze horretan, menperatu eta edertu gura horretan, larregizko mozketak mutilazino dirudie. Eta ederra izateko be, librea eta osoa izan behar dala pentsarazoten deuskue.

Patu tristea platano edo alboena. Luis Cernuda (1902-1963) Sevillako poetak platanoak tristetzat jotzen zituan (*los taciturnos platanos*). Zelan ez ba! Urkiari inork ez leuskio holangorik egingo!


**Lorategien Diseinu eta Gauzatzea**  
 Ureztaketa instalazioa  
 Mantenua eta Inausketa  
**LORAZAINTZA**  
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea  
 Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
 gorosti@gorostisci.com


**Ortodontzia**  
 Implantateak  
 Estetika  
 Marina Urigoitia Aidedkoa  
 Odontologoa  
 Bidebarri 1, behea  
 48140 Igome-Bizkaia  
 T. 94 632 50 39  
 Nafarroa Zirkuluak 110  
 R.P.S. 25/06

**EXCAVACIONES**  
**MARGOIZA**  
 Iñaki  
 Martín Garastiza  
 Tel. 607 272 424  
 610 271 128  
 Tel/Fax: 94 433 22 28  
 Ubideratzeak  
 Lurrerauzketak  
 Baso pistak  
 Ur Putzuak  
 Era guztietako hondeaketak  
 Bº URIBE - 48144 ZEANURI  
 e-mail: margoiza@euskolnet.net

## IGORRE

# Agirre Lehendakaria kalea oinezkoentzako topaleku izateko pentsauta dago

Sei bat miloe euro eta sei-zortzi bat urte beharko dirala Agirre Lehendakaria kaleko proiektua gauzatzeko uste dau Galder Olibares Igorreko alkateak. Kale honen proiektua erakusten dauan maketea eta planoak egon dira Kultur Etxeko erakusketa aretoan eta 9an alkatea egon zan azalpenak emoten.

### Erredakzinoa

Obra honen lehenengo fasea aparkalekuak dira. Aparkaleku bi egingo dira "obrak egiten diran bitartean jentek non aparkau euki daian", baina Agirre Lehendakaria kaleak izango dauan eraldaketarik handiena oinezkoai emongo deuslan lekua izango da. "Espaloi guztiak handitu egingo dira eta danetan muino formako parterreak egongo dira. Idea lehiaketea irabazi ebanak emon eban idea hori. Taberna guztien aurrean terrazak ipinteko lekua gordeko da. Bidegorria be egongo da eta erreka bazterrean pasealeku bat egingo dogu zona hori errekueretako" azaldu eban alkateak.

### Autobus geralekua Lasarte parkearen parean

Bilboko noranzkoan mantenidu egingo da autobusaren geralekuaren kokapena. Ez, oster, Zeanurirantzakoan. "Geralekua etheen artean ipini ezker, leku ilunean geratzen da eta parke aurrera ekarteak hainbat bentaja ditu. Alde batetik, autobusaren zain egon bitartean, umeak parkean egon daitezke aspertu barrik eta errez jagoteko moduan. Parkearen erabiltzaileentzat be, bentajea dauka kokapen honek,



Galder Olibares alkatea herritarrei azalpenak emoten.

ze euri tanta batzuk egin ezker, aterpe bat eukiko dabe parkean bertan. Azkenik, etxoteko lekua argia eta zabala izatea gura genduan, konfidantzea emoten dauan lekua" esan eban Olibaresek.

Oinezkoak errekuerauko dabe Igorreko erdigunea. Autoak ixteko lau aparkaleku egon-

go dira proiektua amaitutakoan: futbol zelai ondokoa, jubilatuen etxe ostekoa, Olabarrikoa eta Garbekoa. Trafikoari jagokonean, aldaketarik inportanteena Elexalde ia osoa norabide bakarrekoa izango dala da, "mobikortasun planaren arabera norabide bakarrekoko kaleak segurtasunean irabazten dabelako".

## ZEANURI

# Prezio tasautako etxeak egingo dabez

### Erredakzinoa

Martiaren 3an, prezio tasautako etheen egitasmoa aurkeztu eban Zeanurin. Egitasmoaren arabera, hamabost etxe egingo ditu Pagolar promotoreak, Torrean. Etxeok 3 logela izango dabez eta 80 m<sup>2</sup> inguru. Plantakoak izango dira, lorategia, garajea eta trastelekuagaz. Eta prezioa 162.000 eta 216.000 euro artean egongo da. "Etxe honek erosi ahal izateko ezin da beste etxerik euki eta batez be gazteai dagoz zuzenduta. Gitxienezko diru sarrerea 9.000 euro urtean izan behar dau erosi gura dauanak eta gehienez 52.000 euroko diru sarrerea konbinezatuz unidateko" dinoe udaletxetik.

Dana dala, oraindino ez dago eskakizunak egiteko epea zabalik. "Baldintzen ordenantza onartu behar da lehenengotik. Hori egingoan, aurkeztuko dira

baldintzak eta eskakizunak egiteko epea zabalduko da" azaldu deutso BEGITURI Izaskun Sagarna Zeanuriko alkateak.

### Desadostasunak baldintzen inguruan

Zeanuriko ezker abertzaleak bere desadostasuna agertu eban egitasmo honeguz. "Udalak promotora pribadu bateri emon gura deutso etheen eraikuntzea eta guk kooperatiba bat sortutea aldarrikatuten dogu edo eta eraikuntza enpresa bateri emon behar bajako lan hori, deialdi publiko baten bidez egin daite. Holan, beti defendatu dogun gardentasuna praktikan jarteagaz batera, etxean salneurriak be merkatu egingo leitezke salneurria lar garestia iruditzen jaku eta, merkaduan dagozan prezioen antzekoa" azaldu eutsan BEGITURI ezker abertzaleak.

## ARRATIA

# Zugatz eguna gurean

### Erredakzinoa

Arratiako umeak batez be, landutako dabez inguruko mendietan Foru Aldundiak bialdutako urkiak, pagoak, haretzak eta beste zugatz batzuk urtero udabarri inguruan Udalak antolatuten daben egunean.

Zeanurin, martiaren 12an, batu zan jentea eta Saldropon landatu zituen zugatzak. Diman, barriz, 15ean izan zan: 10:00etan eskolatik urten eta Zumeltza inguruan landatu zituen arbolak. Igorren, Lemoan eta Areatzan, egun berean ospatuko dabe zugatz eguna, hilaren 19an, hain zuzen eta 10:00etan daukie

atxurra hartzeako zitea. Igorren Urbieta futbol zelai ondoan batuko dira herritarrak, Lemoan, Elizondon San Antolinen landatzeko zugatzok, eta Areatzakoak, eleiz aurrean, Pagomakurrera joateko.

### Ez herri guztietan

Bedian eta Arantzazun ez da zugatz egunik egingo eta Ubiden ez da egun zehatz bat ipinten. Hori bai, udaletxean izaten dabez eskuragarri zugatzak herritarrak gura dabenean landatzeko.

Zeberion, oster, ez dabez zugatzak landutako, gaiaren inguruko taillerak egingo dabez umeak ludotekan.

**Elexalde**  
Meri eta Josetxu  
Pinturak (kolore guztiak)  
Egur babesleak  
Suteak eta behe-suak  
Garbiketa produktuak  
Lehendakari Agirre, 11 bis. • 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 673 62 34 • Fax 94 673 72 38

**indar**  
instalazio elektrikoak  
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
T. 94 655 47 19  
indars@indars.es • www.indars.es

**begitu**  
amata ubide zerbeto

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta eskuzko zain orduz  
Garbe, 10 - 48140 Igone (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31, Faxa 94 673 70 83  
e-posta: unokua@euskotraf.net

**Hotel Arantz**  
Bilbao-Ormaiztegui, 22. 48100  
Telefonoa 94 673 02 28 - Fax 94 673 02 28

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Fax: 609-79-40-54

**ekin s.l.**  
LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETA  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTSU SAREAK  
BASERRI ETA BASOAKO BIDEAK  
FABRILLOAK  
URBANIZAZIOAK  
Bekokale 12 - 48143 Areatza (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Fax: 94 673 95 25  
email: c.ekin@telefonica.net

## ARRATIA

## Uri hondakinak murriztu dira Bizkaian



Arratia Bizkaiko batz besteren azpitik dago zaborrak sortzean.

## Erredakzioa

2010ean, 2009an baino 13.282 hondakin tona gitxiago sortu ziran Bizkaian nahiz eta 1.066 biztanle gehiago izan, BFAK emondako datuen arabera. Holan, igaz, 532 kilo uri hondakin sortu ziran Bizkaian biztanle bakoitzeko, 2009ko datuak alderatuta 12 kilo gitxiago personako eta

urteko. Aldundiaren arabera, uri-hondakin murrizketa bai etxeko hondakinetan (% 0,78), bai industria, merkataritza eta erakunde hondakin asimilagarrienetan (% 5,77) izan zan.

Birziklatzeari eta gaikako bilketeari jagokonez, euren horretan jarraituten dabe aurreko urteetako indizeak. "Zaborren birziklatze-indizeak etenbarik hasi

dira azken hamarraldian zehar, eta arlo horretan gorengo mailan dagozan europar herrialdeen pareko mailak lortu doguz. Bizkaiak dituan bitartekoai begiratuta, gure probintzia aurrendaria da estaduan, uri-hondakin kudeaketan" dioe Foru Aldunditik

Uri hondakin birziklapenak eta gaikako zabor bilketeak % 35ean jarraituten dabe.

## Arratian, Bizkaiko batz bestekoa baino gitxiago sortu zan 2009an

Mankomunidadeak 2009ko datuak emon ditu. Honeen arabera, Arratian 450 kilo hondakin sortu ziran biztanleko eta urteko 2009an. Bizkaiko 2009 eta 2010eko batz bestekoa baino gitxiago.

Birziklatzeari jagokonean, barriz, beti mankomunidadeko iturrien arabera, Arratian uri hondakin % 80 birziklatzeko gaitasuna izan arren, % 30 baino ez dogu birziklatzen".

2009an, beraz, Arratia Bizkaiko batz besteren behetik geratu zan, birziklatzeari jagokonean.

## IGORRE

## Etorkinentzako "Aisa" euskera ikastaroetan 32 lagun aurten



"Aisa"ko ikasleak Kultur Etxean.

## Erredakzioa

Zezeilaren 28an etorkinentzako "Aisa" euskera ikastaro barriak hasi ziran Igorren. Hiru ikastaro antolatu dira eta ikastaroak 60 orduko iraupena eukiko dabe. Kubulu eskalgigiko (AEK) irakasleak izango dira ikastaroa emongo dabenak, astelehen-eguzten eta martitzen-eguztenetan, goizeko 10:00etatik 12:00etara eta eguerdiko taldea 14:15etik 16:15era. Guztira 32 ikasle dira. Euskerearen ikaskuntzan lehen pausuak emon gura dabezan etorkinentzako harrera ikastaroak dira. Gizartea hobeto ezagutzeko aukera emoten da-

ben gaiak jorratzen dira: agurrak, zenbakiak, familia, eskola, garrailoa, osasuna, kirola, merkaturia eta erosketak... eta euskerearen oinarriko ulermena lantzekoak be (errotuluak, kartelak, ordutegiak...). Helburua, euskeraz gixieneko gaitasuna lortzea da. Etorkinak euskera ikasteko ikastaro hau Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuak antolatu dau, Arratiako Udalen Mankomunitateagaz eta AEKgaz alkarlanean. Udaleko euskera teknikariak, AEK-k eta mankomunidadeko gixarte zerbitzuko teknikariak "Aisa" ikastaroari buruzko informazioa emon deutsee bulegora hurbildu diran etorkinai.

## IGORRE

## Aldaketak Igotranseko ordutegian eskaereari egokitzeko

## Erredakzioa

Igotrans zerbitzua martiatik aurrera, martitzen, eguzten eta barikuetan da. Igotrans eta San Kristobalera zerbitzua finkoa da eta beste auzuneetara, eskaerearen arabera. Solaguren, Loiate, Garai, Garamendia, Mimintze, Garakoi eta Urkuzuko biztanleak bezperan eskatu behar dabe zerbitzua 902 540 890 telefonora deituta.

"Igotrans auzuneetarako garraio zerbitzua da, taxistakaz emoten dana. 2010eko urri lehenengoan ipini zan martxan, abendura arte proiektu piloto legez. Martiatik aurrera Igotrans jarraituko dau, baina eguzten gixiagotan" azaldu dau Gotzone Amuriza zinegotziak.

## Euro bat biajeko

Zerbitzu eguzten murriztu badira be, funtzionetako modua ez da aldatu. Holan, erabili ahal izateko bonuak eskatu behar dira udallexean eta behin zerbizua erabilita, taxisteari bonu bat eta euro bat emon behar jako.

## IGORRE ETA LEMOA

## Apelliduetan abizenduen kanpaina martxan da

**apelliduetan abizenduen**  
**goikoetxea egiluz**  
**etxebarria urtzelai**

**Zure izena edo abizena euskarazko grafiaz jarri gura duzu?**

**Zer egin behar duzu horretarako?**

- Erregistro zibil edo epaitegira joan eta izena edo abizena euskarazko grafiaz ipini nahi duzula adierazi
- Bertan emango dizuten eskaera orria bete
- Honako agiri hauek eraman [adingsabekoa bazara, gurasoekin egin beharko duzu eskaria]:
  - Nortasun agiriaren fotokopia [adingsabekoa bazara, gurasoekin eraman beharko duzu]
  - Hitzek hitzeko jaiotza-ziurtagiria, jaioterriko epaitegian egingo dizute edo [www.justizia.net](http://www.justizia.net) helbidean soka dezakezu
  - Errola ziurtagiria [adingsabekoa bazara, gurasoekin eraman beharko duzu]. Udalerriaren egingo dizute
  - Familia liburua

Zure izena edota abizena euskaraz zelaz idatzi behar den kontsultatzeko [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

Argibide gehiago nahi izanez gero, deitu edo hurbildu euskara zerbitzura  
Tel. 94 631 53 84  
[zuzterretik@euskaltzaindia.net](mailto:zuzterretik@euskaltzaindia.net)

## Igorre eta Lemoan banandu dan foilettoa.

## Erredakzioa

Izen-abizenak euskerazko grafiaz ipinteko kanpaina martxan da Igorre eta Lemoan. Horretarako, izena euskeratzeko edo euskal abizenak euskerazko grafiaz idazteko egin behar diran urratsen barri emoten dauan triptikoa etxe banandu da Igorren eta Lemoan.

Triptikoaren lehen zatian, grafia aldatuteko erregistro zibil edo epaitegira hurreratu behar dala azaltzen da eta bertan, emoten daben orriagaz batera, zeintzuk agiri aurkeztu behar diran be esaten da. Agiriok,

Nortasun Agiriaren fotokopia, hitzek hitzeko jaiotza-ziurtagiria, errolda ziurtagiria eta familia liburua. Horrezaz gan, izena edo abizena zelaz geratuko dan kontsultau daiteke Euskaltzaindiaren web gunean, [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)-en. Informazio gehiago gura izan ezker, Igorreko Euskera Zerbitzuko 94 631 53 84 telefonoan eta Lemoakoan 94 631 30 05 emoten dabe.

Kanpaina honetan, Igorre eta Lemoaz ganera Bizkaiko 19 udalerririk eta mankomunidade batek parte hartzean dabe.

## IGORRE

## Lurrarin Rock aprilaren 2an

## Ainhoa Duñabeitia

Igorreko Lurrarin Gazte Asanbladak, urteurrena ospatu eta Igorreko gazteen arteko harremanak sendotuteko asmoz jaialdi bat antolatu dau aprilaren 2rako eskoletako aterpean. Eguzten guztiko jai izango da. Goizean olinpiadak egongo dira eta bertan parte hartzeako konbitea luzatzen deutsee Igorreko gazteai

asanbladakoak. 11:00etan asanblada eta koadrilen arteko jokoak egongo dira. 15:00etan Gastronomi lehiaketara, osagai komuna: gaztaia. Ostean herriko tabernetan zehar poteoa txarangeagaz eta 19:00etan Kontzertuak: Bidean Galduta, Enkore, Jaik!, Nik (Khaos), Reborn eta Txirixorra.

Antolatzailerak jaialdian parte hartzeako deia egiten deutsee jenteari.

ARRATIA

# Konzentrazinoa eta kultur ekitaldiak andren eskubideak aldarrikatzeko

**Erredakzioa**

Hirurogeta hamar bat lagun batu ziran martiaren 8an Igorreko Kultur Etxe aurrean andren eskubideak aldarrikatzeko Emakumearen Eguna ospatuten dala 100 urte bete ziranean.

Arratiako andra taldeak eta Udaletako bardintasun sailak hainbat ekitaldi antolatu ditue hile osoan zehar egiten dabizanak.

**Datozenak**

Hilaren 18an Igorreko Kultur Etxean Noka talde feministak "Gure gorputza, gure sexualitatea birpentsan" izeneko tailerra antolatu dau.

Egun bi beranduago, 21ean, Bizkaiko Emakume Asanbladako

kide eta Emakumeen Dokumentazio Zentroko langilea dan Maria Jose Solak "Abortua mobimentu feministaren ikuspuntutik" izeneko berbaldia emongo dau. Bertan, aldarikapen honen historia eta esangurea errepasauko dau.

Azkenik, hilaren 26an, Aitziber Gar-

mendiak eta Ainhoa Garaik, *Baginaren bakarriketak* antzeztuko dabe, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean. Antzezlari hau Eve Ensler feministak estatuatuarrak idatzi eban eta 1996an estreinau zan New York-en. Harrezkeroztik herrialde eta hizkuntza askotan antzeztu da.



Igorreko konzentrazinoa.

ARRATIA

# AHTrako goi tensinoko linea Zeberio, Bedia, Igorre eta Lemoatik

**Erredakzioa**

Arratia Bizirik jakitera emon dauaren arabera, AHTraren beharrak asetzeko, goi tensinoko linea bat jarriko dabe Bizkaian eta Gipuzkoan. 72 kilometro pasautxuko sarea egin gura dau REEK Gueñes eta Ezkio-Itsaso artean. Linea honek 400 kilowatteko ahalmena izango dau. Espainiako Aldizkari Ofizialak dagoeneko argitaratu du REEren baimen eskaria, eta zabalik dago alegazioak aurkezteko epea.

Arratia Bizirik arabera, lineak zeharkatuko leukiezan herrien artean Zeberio, Bedia, Igorre eta Lemoa dagoz. "Abiadura Handiko Trenaren

proiektuagaz lotu dau azpiegitura hori REEK; haren esanetan, «hil edo bizikoa» da ahalmen handiko argindar sare bat eraigitea, tren lasterraren energia beharrai erantzuteko» azaldu dabe ekologistak.

REEk 37 milioe euroko inbertsioa egin gura dau linea eraigiteko. Prozesua hasita, urtebete baino lehen lortu gura dabe ingurumen baimena, eta 2013an hasi obrak. Urte biren buruan kableak 72.427 metroan zabaldua izatea da enpresearen guraria. "Aurreikuspen horreek betetzeko, AHTA martxan ipini aurretik —2016— abian litzateke goi tensinoko linea" adierazo dabe.

Abertzaletasunetik eta ezkerretik munduari irekiak. Ezker abertzalea sendotzen eta XXI. mendeko ezker zibil eta zabala eraikitzen.

# IREKI BIDEA EZKERRARI

aralar

*Ametzola Landetxea*

Ametzola 1-1  
48499 Zeberio  
629 429 870  
www.ametzola.net

2011 LABUR BIRA

FILM LABURREN VIII. ZIRKUITUA

<b>MARITAN</b> 2011 (100%)	<b>ARTALDE</b> 2011 (100%)	<b>ONDAR ARDIK</b> 2011 (100%)
<b>SORTALDEA</b> 2011 (100%)	<b>EDUKI TITI</b> 2011 (100%)	<b>BLANK POSTCARDS</b> 2011 (100%)
<b>BIAN BAI</b> 2011 (100%)	<b>BARRERA BEGIRA</b> 2011 (100%)	<b>NIRE BISTA FAVORITOA</b> 2011 (100%)

**KAMERATOA 2010**

EGUNA: apirilak 1, bankua      ORDUA: 20:00etan  
 LOKUA: Areatzako Udal Aretoa  
 ANTOLATZAILA: Ganoraz Arratiako Euskera Taldea

## RUPER LEKUE

# "Orain 30 urte jasotako kantakaz bildumea egingo dogu"

BEGITUKO "Geure Berbategie" sailaren helburua proiektuaren erakuslehioa izatea eta Arratiako berben ondarea jakitera emoten lagundutea izan da. Arratiak ondare kultural oparoa dauka, bertako jenteak jasota eta datorren hiletik aurrera leku horretan beste sail bat egongo da, Arratiako herri musikea ezagutzera emongo dauana.

Orain dala 30 urte, Ruper Lekue igorretarrak eta beste batzuk baseriz baserri kantak grabetan ibili ziran. Kanta hareetako asko urte horreek danak kajoi baten egon ostean, Musika Eskolaren 25. urteurrenean bilduma baten jasoteko proiektua dauka musikariak Zertu Kultura Alkartea eta Arratiako Musika Eskoleagaz.

Ruper Lekue Luis Iruarizaga Abesbatzaren, Areatzako Bandaren eta Arratiako Musika Eskolearen sortzaileetako da. Hainbat urte, horretan emon ostean, Gasteizko konserbatorioan orkestra irakasle egon zan zazpi urtez, eta azkenengo bost urteak Zornotzako Musika Eskolako zuzendari.

Idatz eta Mintz aldizkarian.

UEUKO taldeak be beste publikazintzu bat egin eban bere kantakaz, eta orain dala urte batzuk Xabier Amurizak egin dau liburu potolo bat *Bizkaiko Bertso-gintza*, eta han be ateratzen dira batzuk. Hitzak. Musikarik ez.

Orain Arratiako Musika Eskolearen 25. urteurrena dala eta, bururatu jatan kanta horreek guztiak bildu eta bilduma bat ateratzea. Hemen euki dodaz kantok, kajoi baten sartuta 30 urtez. Bai grabazioak, orduko zintak, eta bai kanten berbak.

**Noiz aterako da?**

Musika Eskolearen urteurrena datorren ikasturtean da. Egiten dogun guztia sasoi horretan izango da. Eta bilduma ez dakit noiz aterako dan, baina datorren urtean.

BEGITUN kanta horreek ateratzea idea ona izango zala pentsau genduan.

**Kantak batzean hasi zina-nean, bazeunkan musikeagaz loturarik?**

Ni orduan ikasten nengoan, 18-19 urte neukazan. Taldetxu bat sortu genduan kanta zaharrak kantetako eta hori dala eta sortu zan idea hori.

**Talde harek ze izen eukan?**

Axlor. Ez zan talde ezaguna izan, denpora laburrean ibili ginan eta. Herriko musikea egiten genduan. Orduan modan egoan herriko musikea, folk-a.

**Arratian musikea beti izan da oso inportantea, modatik ha-****Erredakzinoa****Batu zenduzan kantetatik hasiko gara. Noiz izan zan, zenbat batu zenduezan, zelan sortu zan idea?**

Orain dala 30 urte inguru baseriz baserri ibili ginan batzuk kantak batzean. Diman, Igorren... danean. Kanta horreetako batzuk argitaratu ziran, baina ez danak batera, ez da bildumarik egin. Berbarako, unibersidadeko filologia ikasle batzuk ibili ziran horretan, baita Adolfo Arejita irakaslea be. Udako Euskal Unibertsitateko talde bat be ibili zan 87an edo. Eta Labayru be ibili zan kantak batzean. Labayrukoak erromantze bila ibili ziran gehienbat, eta argitaratu zituen



Ruper Lekue.

**laburmetraje lehiaketatea 011**

**sariak**

- > 18 urtetik beherakoentzat: 300€ bonoetan
- > 18tik gorakoak: bideo kamera eta afaria
- > Sari banaketean bagilaren 18an izango da, 21:00etan

**baldintzak**

- > Euskeraz izatea
- > 2 eta 14 minutu bitartekoa
- > Egileak arratiarrak izatea

**gaia**

- > Librea (epaimahaiaren esku egongo da filmen bat lehiaketatik kanpo ixtea iraingarri gertatu leitekela ikusiz gero)

**epea**

- > Bagilaren 2a baino lehenago entregau behar dira, Igorreko kultur etxean (filma gutunazal itxi baten barruan entregau behar da. Gutunazal horren barruan: filma eta egilearen datuakaz beste gutunazal itxi bat)

**epaimahaia**

- > Arratiako ikus-entzunezkoetan adituak

Igorreko Udala  
Igorren Euskeregia

**igorreko san antonio jaia**





Ruper Lekue Areatzako Bandaren zuzendari zanekoa.

### rago, ez?

Areatzan, baegoan ohitura musikala. Han musika oso inportantea izan da beti eta bandea sortu genduan ni hara joan nintzanean. Fanfarria bat egoan, Kaixo fanfarria eta nire bila etorri ziran fanfariara zuzendari joateko ni soldadiskatik etorri eta gero. Eta, bandea sortu genduan. Nik proposatu neutsen akademia bat ipinteko eta banda bat egiteko. 25 urtean egon naz Areatzako Bandako zuzendari.

### Kontaiguzu zelango ibilbidea egin dauan bandeak.

Hasiera gogorra izan zan. Holango banda bat aurrera aterateko dirua eta jentea behar dira. Banda batek hainbat jente behar dau. Inoiz berrogetaka be egon gara. Ni 25 urtez izan naz bandan zuzendari eta leku askotan jo dau bandeak: Bizkaian, Gipuzkoan, Riojan... Gauza asko egin doguz.

### Herri bakotzak bere berezitasunak daukaz. Esaterako Lemoako korala hilzorian dago. Zelan dagoz koralak eta bandak, zeintzuk dira joerak?

Oraingoa ez da momentu lar ona horretarako. Eta holango alkarteak mantendutea gogorra da. Lehen be ez zan erreza, baina gaur egun gatxagoa da.

Abesbatzen arazo handi bat da gazteria ez dala sartzean. Eta nik uste dot gaur egun inoiz baino

gitxiago. Gazteak beste estilo batzuk erakartzen dabez.

### Bai, rock talde pilo dago eta indarra daukie. Ez dago "trast-base" bat edo egiterik?

Bai. Badago egon. Nik uste dot holango elementu klasiko batzuentzako -koruak, bandak...- beti egongo dala jentea, bai edadekoak bai gazteak. Baina gazteentzat beste estiloak askoz erakargarriagoak dira.

### Zer izan da musika zure bizimoduan?

Ni gazte-gazterik hasi nintzan. Bilbon. Bilbon 10 urtean bizi izan nintzan. Zazpi urteagaz joan nintzan Bilbora, kolejio batera eta han hasi nintzan txistuagaz, gero akordeoiagaz eta gero ikasketa ofizialak egin nituan, musika eskola baten lehenengotik, eta gero konserbatorioan. Bizitza osoan musikan, irakasten, zein beste gauza batzuk egiten.

### Zenbat instrumentu jotzen dozuz?

Txistua, akordeoia, pianoa, organu karrera be egin neban, baina ez naz konzertista bat izan inoiz. Beti ibili naz endredetan.

### Kolejotik urtendakoan zer?

Hamazortzi urteagaz Igorrera etorri eta eskolak emoten hasi nintzan. Orduan egoan gauza bakarra zan herri bakotxean egoala irakasleren bat bere etxean klaseak emoten, baina besterik ez.

Hamasei urteagaz edo hasi nintzan organua jotzen eleizan. Eta 18 urteagaz eleizan batzean ginokaz kora bat egitea bururatu jatan. Batzar bat egin genduan eta holan sortu genduan Luis Iruarri-zaga Abesbatza.

Ni gero soldadiskera joan nintzan, etorritakoan 10 urtean edo jarraitu genduan. Momentu baten egon ginan ia 50 persona, baina gero gauzak hoztu egin ziran, jentea ez zan ensaiotetara etorten eta ebatzi genduan ixtea. Urte batzuetan geldirik egon zan.

### Eta orduan hasi ziran bandan ala batera izan ziran biak?

Batera. Lehenengo koralean eta gero, soldadiskatik etorrita, deitu eusten bandea zuzentzeko. Orduan fanfarria bat zan. Eta hemen be gauza bera proposatu neban: Bandea egitea eta akademia bat sortzea. Igorren be, abesbatzeagaz batera akademia bat sortu genduan. Erdi publikoa.

### Hori izan zan Arratiako Musika Eskolearen sorrerea?

Bai. Igorreko eta Areatzako akademiak erdi publikoak ziran, ze Udalak dirua emoten eben mantenduteko. Udalaren babes ekonomiko eta azpiegitureakaz eta Udalaren lokalak erabili genduzan bai Igorren, bai Areatzan.

Hiru edo lau urte pasau eta gero, dana batu eta Arratiako Musika Eskolea sortu zan 1986ko urri lehenengoan.

### Momentu honetan zertan za-

### goz?

Momentu honetan ez nago Arratiako Musika Eskolan. Egon nintzan urte batzuetan, gero Gasteizko konserbatorioa joan nintzan orkestrako irakasle moduan eta han egin nituan 7 urte. Orain dala 5 urte, Zornotzako Udalak musika eskola bat zabaltzeko asmoa eukan eta Gasteizkoa itxi eta etorri nintzan Zornotzara zuzendari moduan.

### Berbetan hasi garanekeo proiektura bueltatuz, zer espero dozu horretaz?

Printzipioz daukagun proiektua da bilduma bat egitea. Eta bilduma horretan agertuko dira neuk zein ibili diran besteak, UEUko taldeak, Labayruko taldeak eta besteak, jasotako kantu horreek. Hitzak eta bai partiturak agertuko dira. Grabetako asmoa be badago. Baina, proiektu horretarako diru pilo behar da eta ez dakit dirurik aterako dogun.

Nire asmoa da kanta batu eta argitaratzea, bilduma baten egon daitezkan eta ez daitezkan galdu. Gero hortik aurrera, inork gura badauz ikerketa fonologikoak edo musikalak egin, hor egongo da bilduta materiala.

### Kanta horreek ezagunak dira ala batzuk erdi galduta dagoz?

Ba egon leitezke % 10en bat edo ezagunak, beste asko galdutzat emon daitezkanak. Batzuk ateraten dira liburu edo publikazioen baten, esaterako Amurizaren bertso gintza liburuan, baina beste asko galduta dagoz.

### Esan deustazunaren arabera, erromantzeak be badagoz, zein sasotakoak dira kantak?

Zahar-zaharrak egon ahal dira batzuk, erromantzeak gehienbat. Baina kopuru nagusia XX. mendeko hasierakoa da. Lehenengo 30 urteetakoak. Batzuk ez dira kantu-kantuak, bertso sortak baino.

BEGITUN, kantuaren hitzak, partitura eta fitxa bat aterako dira. Fitxan, iturria zein izan dan, nork batu dauan kantu hori, eta noiz batu dauan agertuko dira.

### Lekuek jasotako kanten

hitzak eta partiturea

BEGITUN agertuko dira

datorren hiletik aurrera

### Datorren ikasturtean

Arratiako Musika

Eskoleak 25 urte

beteko ditu

**expert** **ARRATIA**

E-posta: expertarratia@cordevi.com  
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

**TXARO**  
SAGARDOTEGIA  
Zeberio

Sagardotegiko Menua - Baha jana  
Okela eta arrain erreak - Menu bereziak

Tel. 94 407 40 00 - 607 584 997  
Saldarain auzoa 8 - Zeberio - Bizkaia

**ALDAMIN**  
JATETXEA  
Areatza

Bartolome Deuna, z/g  
Areatza  
94 403 89 53

Zugaitik BEGITUten dogu  
A.P.I. 495  
www.inmobiliarialarrea.com

**Inmobiliaria Larrea**

Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**ASESORIA**  
**Gorbeialde**

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**HERRIKO**  
**BENTA**

HERRINO PLAZA  
48142 ARTEA (BIZKAIA)  
Tel. 94 631 72 56

**ellauri**  
HOTEL

Naturazko ospitaleritza

Landa Turismoa  
Erpinia Zerbitzuak

Aitzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

## MENDIA

**Txikon tontorrerako bidean****Erredakzioa**

BEGITUKO zenbaki hau zarratu behar dogunean, Alex Txikon Gasherbrum leko tontorrerako bidean dago: betiko bidetik eta neguan lehenengoz, historia egiteko puntuan.

Martiaren 13an heldu ziran lehenengo kanpora material guztia aldean hartuta 11 orduko igoera egin eta gero eta 15ean, blegean eskegitako azkenengo bidean, Txikonek esaten dau espero dauala ordu batzuk barru tontorra zapaldu eta historia egitea.

Bidean glaziarak zeharkatu dabezala eta arrakalatan be jausi dirala. Uste baino gogorragoa suertatzen ari da espedizino hau baina ilusinoa eta gogo ez jakoz falta ez Txikoneri, ez bere espedizino kideai.



Alex Txikon.

## FUTBOLA

**Aldaketa handirik ez****Maialen Egileor**

Lemoak partidu bat irabazi eta beste bat galdu egin dau: 3 puntuak Palentziaren kontra lortu ebazan 0-2 irabazita eta Mirandesen aurka ez dau punturik lortu 0-1 galduta. Halanda be, zazpigarren postura igon da. 44 puntu ditu. Federazino Kopako finalurrekoetan, ostera, okertu egin dira gauzak Lemoarentzat eta finalera heldu gura badau joaneko 2-0ekoari buelta emon beharko deutso. Eguazten honetan izango da Caravacaren kontrako partidu erabakiorra Arlonagusian, 19:30ean.

**Arratia**

Arratiako mutilak partidu bat galdu eta beste bat bardindu egin dabe: 1-2 egin eben Trapaganegaz eta 0-0 Paduragaz. Holan, hamahirugarren postuan jarraituten dabe 27 puntugaz. Arratiako neskak be ez dira sailkapenean mobidu. Zazpigarren dira oraindino 32 puntugaz. Izan be, Leioako Emakumeak taldearen kontra 1-0 galdu eben, baina Gemikaren aurka 3-0 irabazi.

## BOLA

**Bizkaiko bola txapelketea hasi da**

Juan Mari "Txirpu" Oban.

**Erredakzioa**

Bizkaiko bola txapelketeagaz hasi da bola denporaldia. Hilaren 12 eta 13an jokatu zan banakako txapelketea Dudaeko San Migelen. Irabazlea Pedro Luis Uribarri Boroakoa izan zan,

baina Arratiako batzuk be sailkatu ziran: Obako Juan Mari Aurtetxe "Txirpu", tartean. Bizkaiko binakakoa leku berean izango da hilaren 19an eta 20an eta 16:00etatik 20:00etara jokatu da txapelketea.

Euskadiko txapelketea, barriz, Legazpin izango da bagilaren 4an, goizeko 08:00etatik aurrera.

**Eskualdeko txapelketearen egutegia**

Eskualdekoari jagokonean, lehenengo botaldia epaltzan izango da martiaren 26an. Zazpi botaldi egongo dira eta maitzaren 28an amaituko da txapelketea.

Martiaren 26an, Epaltzan. Aprilaren 2an, Gisetzan. Aprilaren 9an, Boroako San Pedron. Aprilaren 16an, Bernagoitian. Maiatzaren 7an, San Bartolomen. Maiatzaren 14an, Oban. Maiatzaren 21ean, Lemoan. Maiatzaren 28an, San Migelen.

Botaldiak arrastiko 16:30etik aurrera izango dira.

## TRINKETEA

**Dimako bikotea Bizkaiko trinkete txapelduna****Erredakzioa**

Martiaren 9an jokatu zan Bizkaiko Eskuz Binakako Trinkete Txapelketako Finala. Bertan, Gazteak kategorian Ekhi Ziarrusta eta Jokin Etxebarriak osotutako bikoteak lortu eban txapela.

Dimoztarrak faboritoak ziran eta pronostikoa bete eben, nahiz eta partidua gogorra izan. Txumuluxetakoak 40-37 irabazi

eben Markinako Gorosabel eta Pujanaren kontra. "Gazte mailan dimoztarrak faborito ziran eta lehen zatian hala erakutsi eben Ziarrusta eta Etxebarriak. Dana dala, gora etorri ziran Markinako Gorosabel eta Pujana eta aurretik jarri 31-37. Txapelak eskura zituen baina hor azaldu zan Ziarrusta zeinak saketik min egin eta lehia aurrera atera eban (40-37)" dinoe Federazinokoak.

## FRONTENISA

**Txapelketea Artean****Erredakzioa**

Martiaren 2an hasi ziran Artean nagusien frontenis txapelketako partiduak. Hamar bikoteko talde bi dagoz eta bikote bakotzak bere taldeko guztien kontra jokatu behar dau. Taldeko lehenen-

go biak finalerdietara pasauko dira. Finala maiatzaren 29an izango da.

Hamabost urte baino gitxiago daukienentzat, gazteen I. Fronteniseko txapelketea be antolatuten dabil Arteako Kirol eta Kultur Taldea.

## ERRUGBIA



Arratiko Zekorrek Rugby Taldea.

**Ainhoa Duñabeitia**

Partidu itzela zapatu arrastian, hilak 12, Igorren jokatu zana. 16:00etan hasi zan San Txismeko rugby zelaian, Arratiko Zekorrek-Getxo Artea norgehiagokea.

Gogotsu egon ziran arratiarrak, lehenengo postua lortzeako partidu klabea zalako. Giroa ikaragarria eta ondo erantzun eben jokalaria, 34-3 irabaziz. Sano

ondo jokatu eben, zekortxuetako hiruren laguntza be izan eben. Partidua amaitu zanean txalo zaparrada handia jaso eben zekorrek, norgehiagokea irabazi ebelako eta baita be sailkapeneko lehenengo postuan dagozalako. Orain, partidu bi falta jakiez jokatu-teko eta biak irabazi behar dabez postu horretan mantenduteko. Datorren astegoienean, hilak 19, ez da rugby partidurik egongo.

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza      Tifnoa 649 86 95 36

AKEITEGIA  
GAY & LORA  
IGORRE

NAIARA Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94633 52 76

\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA  
SOLARIUM  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 631 92 00

AKESOLO, S.A.  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29      Telefonoa: 94 671 60 14      IGORRE BIZKAI

MENDIA

# Gorbeiaiko kurutzean Arratiako Emakumeen I. Mendi Martxea



Arratiako andrazkoak Gorbeiaiko kurutzean.

Erredakzioa

Hogei bat andra animau ziran Gorbeiaira igoten Arratiako Emakumeen I. Mendi Martxan. Eguraldia ezin aproposagoa egin eban eta gehienak kurutzeraino igo eban. Bajatukeran, Areatzan

indarrak barritu ebezan Areatzako Emakume Foroak eskeinitako kopautxuagaz. "Hau lehena da, baina bitartean bardintasuna lortzean ez badogu, holango 50 egingo doguz gitxienez" esan eban Sara Gutierrezek Areatzako Emakume Forokoak.


MENDIA

# Anbotoko dameari bisitatxua Kino Mendi Taldekoak

Erredakzioa

Martiaren 19an, Kino Mendi Taldekoak Anbotora urteera antolatu dabe. Urteera mitologikoa izenagaz, asmoa euskal mitologian hain esanguratsuak diran Anbotoko parajeak bisitetea da. Urteera goizeko 09:00etan izango da Igorreko udaletxe aurrean.

Mendi jarduera honek lau ordutik gorako iraupena izango dau eta erdian hamaiketako egitea pentsau dabe antolatzaileak. Zailtasun ertainekoa danez eta ez dala umeentzako gomendagarria abisau gura dabe. "Halanda be, ibilbiderik errezana egiten saiatuko gara arriskuak ekiditeko. Beti be, urteera honen helburua baztertu barik, hau da, Mariñi egineko aipamenetan agertzen diran Anbotoko ingurumari horretako tokiak ezagutzea" azaldu deutso BEGITURI Josu Markina Kino Mendi Taldekoak.



Anboto.

MENDIA

# Lamino Mendi Taldea hilean behin mendira

Erredakzioa

Areatzako Lamino Mendi Taldeak aurtan be hilean behin urteera bat egingo dau mendira. Hilaren 19an izango da hurrengo Gorosteta eta Ipergortara, kargalekutik eta neberabarririk (1261 m). Mendi talde hau

Areatzako Frakazuri Gazte Asanbladak sortu eban orain dala pare bat urte.

Batez be egunean bertan joan-etorriko mendi urteerak antolatuten dabez Areatzakoak. Dana dala, bagilerako aurreikusita daukie astegoieneko urteera bat Picos de Europa eta urri lehenengoan beste bat Pirinioetara. Garagarrileko urteera hondartzara izango da. "Egutegia orientagarria da. Leitekeana da egunak mobidutea. Aldaketak kartelen bidez edo blogaren bidez emongo doguz" dinoo Areatzakoak.

**Urtarrila** - Nuneta/Kortazar .749m. (Egoibar).

**Otsaila** - Egoarbitza .730m. (Ejeta edo Enusa).

**Martxoa** - Gorosteta eta Ipergorta, kargalekutik eta neberabarririk. 1261m. (Areatza).

**Apirila** - Irunagarrieta. 1431m. (Goardetza)

**Maiatza** - Lanasa-Cruz del Castillo . 1654m. (Pjeon edo Lagran)

**Ekaina** - Picos de Europa . Potes.  
Zapatuen - Pico Tesorero . Fuente De -to " el cable" ik  
Domekan - mendia edo descenso de barrancos. (Potes)

**Uztaila** - Ogoña. 305m. Egun pasa Lagran, hondartzan.

**Abuztua** - Ujo. 608m. Laminetza Gaztearen Kurteurren.

**Iratia** - Pirineoak . Jaka.  
Zapatuen - Aspe 2645m. Jaka  
Domekan - Collada

**Urtia** - Valdegrull . 1225m. (Valderejo) .

**Azaroa** - Urzilaiz. 136m. (Nafaria).

**Ahenda** - Gortela . urteko azken eguna eta azken itoera.

Lamino Mendi Taldearen urteerak.

Lamino Mendi Taldearen urteerak.

Begitu-lagun egiteko aukera parebakoa

bi lagunentzako afaria  
**Axpe Goikoa jatetxean**

edo **gaua+gosaria**  
**Atxaspi Hotelean**  
**zein Ellauri Hotelean**

eroango dozu sari lez

Urtailaren 5etik martiaren 31ra

begitu-lagun barriak *Arratia* inguruko *Hiztegia* doban emongo jakie eta zozketa berezia egingo da eurek az **BEGITU**ren 9. urteurrenagaz batera

7 **begitu-lagun**  
ekarten badozuz:

## KORRIKA

## Kultura galapan

Kultur ekitaldi batzuk urtero egin arren, Korrika kulturalaren barruan sartuko dira aurton, Sanjoseetako bertso saioa, berbarako.

## Erredakzioa

Beste batzuk, oster, urte birik behin egiten dira, Korrika bazkaria lez; edo guztiz nobedadeak dira, Lemoako Gaztetxean egingo dan poesia emonaldia kasu.

## Bertsoak, poesia, mendia eta jana

Martian, Sanjoseetako bertso saioa dogu Igorren, hilaren 19an. Ekitaldia 18:04ean izango da, Kultur Etxean. Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga,

Andoni Egaña, Julio Soto, Amets Arzallus eta Jon Maia puntako bertsolariak, eskeiniko dabe saioa.

Hilaren 25ean, barriz, "Igo gara" titulupeko poesia emonaldia entzuteko aukerea egongo da Lemoako Karbie Gaztetxean 20:00etan. Eta hurrengo egunean, 26an, Gantzabal Mendi Taldeak antolatuta Arratiako mendi eta herrietako lehengo zeharkaldia. Egun horretako mendia Urrekoatxa izango da. Hara joateko jentea 09:30ean batuko da Zeanuriko plazan eta bajatukeran

Areatzan amaituko da umeakaz egin daitekean ibilaldi hau.

Apiril 2an, barriz, Buenaventura Astigarragako sagardotegira urteera izango da. Izena emoteko azken eguna martiaren 23a. Izena Kubulu euskaltegian emon behar da 94 631 56 57 telefonoan.

Hilaren 9an, barriz, Korrika bazkaria dago. Jai giroa eguerdian hasiko da, 13:00etan poteoa trikilariak lagunduta eta Gau Lora tabernatik abiatuta. 14:30ean bazkaria kiroldegian. Sarrerak Arratiako herrietan ohiko lekuetan erosi ahal dira jada. Eta umeak disfrutetako, Zaztaparrak taldekoak eurentzako jokoak eta tailerak antolatuko dabez. Bazkalostean, 17:00etan, Jokaldi taldearen musikea jantzetako aukerea izango da.

Amaitzeko, apirilaren 15ean, Korrika txiki ospatuko da. Egun honetan, umeak egingo dabe Lemoa eta Zeanuri arteko bidea galapan. Arrastirako jai antolatu dabe, umeentzako ikuskizunak, jokoak, kalejirea eta afaria, besteak beste.

Bazkarirako txartelak salgai dagoz.

## SAN JOSETAKO BERTSO SAIOA

Martiek 19en,  
IGORREN



Amets Arzallus

Andoni Egaña

Unai Iturriaga

Maialen Lujanbio

Jon Maia

Julio Soto

Lasarte  
Aretoan

18:04ean



## LABURBIRA

## Euskerazko ikus-entzunezkoak Areatza eta Igorren Laburbiragaz

## Erredakzioa

Film labur zirkuituaren 8. edizioak 27 emonaldi eskainiko ditu Euskal Herrian. Euskerazko ikus-entzunezko urteko produktzioa ezagutarazo eta herrietako kultur eskeintza aberasteko helburua daukan zirkuitua urtero antolatzen dau Ganorazek Topaguneagaz. Gurean bi emonaldi izango dira, bata apirilaren 1ean Areatzako Udal Aretoan arrastiko 20:00etan eta bestea apirilaren 8an, goizeko 11:30ean Igorreko Kultur Etxean.

## Bederatzi ikus-entzunezko

Emonaldian bederatzi ikus-entzunezko eskeiniko dira, 2009 eta 2010ean ekoizitakoak. Aurreko edizioetan bezala, honetan be ahalegina egin da ibilbide luzeko egileak eta egile barriak kontuan hartzeako. Ostera, askotariko aukerea egiteko arreta berezia ipini da, eta holan, formatu, estilo eta izaera sano desbardinako piezak osotuten dabe emonaldia: umorezko laburrak, serioagoak, irudi errealekoak... Emonaldietako bat Londresen, bertako Euskal Etxea edo *Basque Society* dalakoaren eskutik izango da.

## PALESTINA

## Palestinaren ganeko ekitaldiak Igorre, Durango eta Bilbon

## Erredakzioa

Palestinaren ganeko *Gueto* 2009 dokumentala eta Anwar Hag-en berbaldia izan ziran martiaren 10ean Igorreko Kultur

Etxean. Dokumental eta berbaldi hau, hainbat Gobernu Kanpoko Erakunde eta gizarte eragilek antolatutako Palestinaren ganeko ziklo baten barruan dagoz. Ziklo hau osotuten daben hurrengo ekitaldiak, hilaren 17an Durangoko Kultur Etxean David Bondiak eta Anis Hawari emongo daben berbaldia eta martiaren 30ean Bilboko Bazar Nagusietan Agustin Velloso emongo dauan berbaldia dira. Berbaldi bi honek 18:30ean izango dira.

HITZALDIAK

# Jon Landa eta Joxe Arregiren berbaldiak

Jon Urutxurtu



Joxe Arregi.

Arratiako eleizeak berbaldi biak, beste ekintza batzuek batera. Hitzaldiak Igorreko parrokiaren lokaletan izango dira, arrastiko 19:30ean.

Jon Landa 2006tik Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaria izan zan Ibarretxeren gobernuan eta gaur egun irakaslea da, Euskal Herriko Unibertsitatean. Gatazkak dagozan lekuetara (Hego Afrika, Irlanda...) asko biajau dauan aditua da, eta giza eskubideen gaia nazinoarte mailako hainbat forotan landu dau, besteak beste Nazino Batuen Erakundearen (NBE) batzordean.

Bigarren berbaldia, aprilaren 1ekoa, frantziskotar frailea eta teologian doktorea dan Joxe Arregiren eskutik izango da. Arregi azken aldian ospetsua egin da Munilla Gipuzkoako gotzainagaz izan dauzan gorabeherakaitik.

Martiaren 18an eta aprilaren 1ean, Jon Landa eta Joxe Arregi izango dira, hurrenez hurren, Igorren berbaldi bana emateko: Landak Bakea eta giza eskubideak gaiari helduko deutso eta Arregik, Jesusen barri ona XXI. menderako gaia jorratuko dau. Garizumako egitarauen barruan antolatatu dauz

ARATUSTEAK

## Lehiaketako sariak

Irati Urien

Aurtengo aratusteak be joan dira eta eurek batera, Igorreko hamabost tabernak antolatu eben moztro lehiaketea. Imaginaziodunak, klasikoak, atrebiduak... danerik egon zan jai giroan. Banakako saria, Lesakako Atxaspi hotelean asteburu bat bi personentzako, Igorreko Illart Gumuzioentzat izan da *Mr. Potato* moztorroagaz. Taldeko saria oster, 400 eurotan balorautako afaia, Igorreko San Juan auzoko koadrila batera joan da, "Oestetik Igorrera txiri-txiri" moztorroagaz. Zorionak!



Mr. Potato.

BAZTARRETIK ZIKLOA

## Abertzaletasunaren baliogarritasuna kolokan Ellauri hotelean

Erredakzioa

Alozo taldeak Baztarretik II Konferentzia Zikloaren barruan, "Abertzaletasuna ezbaian: baliagarria al da abertzaletasuna?" izeneko mahaingurua antolatu dau.

Filosofu bik jorratuko dabe gaia: Mitxelko Uranga *Espektroak*

(Utriusque Vasconiae. 2010) liburuaren idazleak, eta Unai Apaolaza Lapiko Kritikoa kolekti-boaren partaideak.

Urtzi Urrutikoetxea Hamaika Tebistako zuzendaria egingo dauz moderatzaile lanak.

Eztabaida, martiaren 24an 19:30ean izango da Ellauri Hotelean.

BAZTARRETIK II KONFERENTZIA ZIKLOA

ABERTZALETASUNA EZBAIAN: BALIAGARRIA AL DA ABERTZALETASUNA?



MODERATZAILEA  
Urtzi Urrutikoetxea. Kazetaria

Mitxelko Uranga. *Filosofian Lizentziatua.*  
Espektroak (Utriusque Vasconiae. 2010) liburuaren idazlea.



Unai Apaolaza. *Filosofian Lizentziatua.*  
Lapiko Kritikoa kolektiboko partaidea.

MARTXOAK 24, 19:30etan  
ELLAURI HOTELEAN (Zeanuri)

Berbaldia iragarten dauan kartela.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU


	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Musika nota. Sari bat.
- 2.- Euzko Gaztedi. Errusiako mendebaleko ibaia.
- 3.- Beilegi. Galioa.
- 4.- Erbinoa. Akabo.
- 5.- Letra bat. Birritan, Txileko ibaia.
- 6.- Mamu. Lutezioa.
- 7.- Errepetiduta, kontuz. Otoitza amaitutakoan.
- 8.- Birritan, oinetako-hotsen onomatopeia.
- 9.- Giro. Urrea.

GOITIK BEHERA

- 1.- Eztanda.
- 2.- Siku. Mesedez.
- 3.- Iridioa. Berkelioa. Kriptikoaren sinboloa.
- 4.- Letra bat. Trebea.
- 5.- Osmioa. Birritan, asmo. Birritan, umeen berbetan, ura.
- 6.- Paga, sari.
- 7.- Alargun gelditu.



Topau Jesusen bizitzaren inguruan bizi ziran zazpi personajeren izenak.

A	R	K	O	L	U	S	A	T	U
B	O	R	S	A	D	U	J	O	I
R	A	B	L	G	E	R	A	H	P
E	R	R	A	M	I	L	E	E	O
H	O	R	R	E	G	A	T	R	H
A	P	A	D	A	Z	M	X	O	E
Z	O	E	H	A	B	E	R	D	O
U	R	K	D	N	U	A	J	E	S
G	O	R	E	R	K	E	S	S	T
I	Z	E	N	T	O	L	A	S	Z
H	O	R	E	B	I	F	U	A	L
A	O	T	A	L	I	P	O	L	O
Z	O	I	K	A	M	E	J	E	A
O	R	I	K	A	M	A	R	I	A
T	E	L	A	B	O	R	E	Z	O

**Pinturas Arratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**INCOESA**  
Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

**axular**  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**Umeen moda 0-20 urte**  
• Babeli • Ray • Aranda  
• AKR • quibiter • Arandiko  
• Gaudelo • Iriti • Hassana  
**sein**  
LEHENDAKARIA AGIRRE, 27 • 946 319 296  
seinmoda@hotmail.com

## AGENDEA

**MARTIA  
IGORRE**

Martitzenetan 19:30ean, Igorreko San Antonioetako Jai Batzordearen batzara udaltxean.

Hilaren 25era arte Kultur Etxeko erakusketa gelan "Dispersioa" erakusketa.

**MARTIAK 17  
IGORRE**

20:00etan, zinekluba *Itsasoaren akaba* Kultur Etxean.

**MARTIAK 18  
BEDIA**

20a arte, urteera eskiatzera Baqueira Beretara. 18:00etan, udaltxe ondoan.

**IGORRE**

19:00etan, tailerra "Gure gorputza, gure sexualitatea birpentsetan" Kultur Etxean.

19:30ean, Jon Landaren berbaldia "Bakea eta giza eskubideak" parrokiaren lokaletan. Eleizaren Garizumako egitarauaren barruan.

**MARTIAK 19  
AREATZA**

Zugatz Eguna. 10:00etan eleiz aurrean Pagomakurrera joateko zugatzak landatzera.

**ARTEA**

17:00etatik 20:00etara, 12-16 urte bitartekoentzat jantza modernoen ikastaroa eskolako gimnasioan.

**IGORRE**

09:00etan udaltxe parean. Kino Mendi Taldeak Anbotora urteera mitologikoa.

10:00etan, Zugatz Eguna Urbietako futbol zelaiaren ondoan. Gero hamaiketakoa.

18:04ean Sanjoseetako bertso saioa. Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Andoni Egaña, Julio Soto, Amets Arzallus eta Jon Maia. 22:00etan *Pa negre* zinea.

**LEMOA**

Zugatz Eguna. 10:00etan Elizondan, San Antolin landatzeko zugatzak.

**MARTIAK 20  
ARTEA**

17:00etatik 20:00etara, 12-16 urte bitartekoentzat

**Errautsak antzezlanaren 2an, 20:00etan Igorren**

*Errautsak*, Euskal Herriko hiru antzerki tropen lana da, Iparraldeko Le Petit Theatre de Pain eta Bizkaitarrak diran ArteDrama eta Dejabu Panpin Laborategia antzerki konpainiak dira autoreak. Alkarrizketen idazkeran Jon Maia, Unai Iturriaga eta Igor Elortza ibili dira. 70.eko hamarkadan jaiotako belaunaldiaren erretratu txiki eta baragarria, Itoiz eta Delirium Tremens taldeen rockagaz hasi zan belaunaldiaren erretratu.

Hodei hil da, gaztaroko lagunak, urteetan alkarren barririk euki barik egon ostean, Hodeiren hiletan bilduko dira. Saminak eta barriz alkartutearen emozinoak eraginda, Hodeiren azken agurra sasoi bateko jai basati bihurtuko da. Antxinako eta oraingo egiak, guzurrak eta kontraesanak azaleratuko dituan gau zoroa. Nonoz izatea amestu eta sekula izan ez ziranaren errautsak baino ez dira gelditzen oster.

jantza modernoen ikastaroa eskolako gimnasioan.

**IGORRE**

17:00etan, umeentzako zinea *El secreto de la última luna*. 19:30ean, *Pa negre* zinea.

17:30etik 20:00etara jantzia Kultur Etxean.

**MARTIAK 21  
BEDIA**

17:00etatik 19:00etara, hila amaitu arte, Bedia ko jaietan pala, futbito eta frontenisean parte hartzeako izen emotea liburategian.

**IGORRE**

19:00etan, Maria Jose Solaren berbaldia "Abortua mobimentu feministaren ikuspuntutik" Kultur Etxean.

**MARTIAK 22  
LEMOA**

Uraren Nazinoarteko Eguna ludotekan.

**MARTIAK 23  
ARRATIA**

Apirilaren 2an sagardotegira joateko izena

emoteko azken eguna Igorreko AEKn.

**MARTIAK 24  
IGORRE**

20:00etan, zinekluba *Debekatuta dago oroitzea* Kultur Etxean.

**ZEANURI**

19:30ean, "Abertzaletasuna ezbaian: baliagarria al da abertzaletasuna?" mahaingurua Alokoko antolatuta Ellauri hotelean.

**MARTIAK 25  
AREATZA**

22:30ean pop-rock kontzertua Bixer tabernan.

**BEDIA**

3, 4 eta 5 urteko umeentzat, Txoko Txikirako izena emoteko azken eguna. (Kolonial-egunak garagamilaren 4tik 15era). 6-11 urteko umeentzat, udalokuetarako izena emoteko azken eguna. (Kolonial-egunak garagamilaren 4tik 15era).

**IGORRE**

19:30ean, Etxerategi antolatutako presoen aldeko kontzertuzinoa.

**LEMOA**

20:00 etan, "Igo gara" poesia emonaldia Karabie Gaztebtxean.

**MARTIAK 26  
IGORRE**

20:00etan, Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garaik *Baginaren bakarrizketak* antzerkia Lasarte Aretan.

**LEMOA**

09:30ean Zeanurin. Komikako Kulturaleko ibilaldia. Aratiako mendiak eta herriak lehenengo zeharkaldia.

**ZEANURI**

Joko Alaik Adunako sagardotegira urteera.

**MARTIAK 27  
IGORRE**

17:00etan, *El pequeño rey Madius* umeentzako zinea. 19:30ean, *127 horas* zinea.

17:30etik 20:00etara, jantzia Kultur Etxean.

**MARTIAK 28  
ARTEA**

19:00etan, presoen aldeko kontzertuzinoa.

**MARTIAK 31  
IGORRE**

20:00etan, zinekluba *Sagarren denbora. 25 urte deseritik itzultzen* Kultur Etxean.

**APRILAK 1  
IGORRE**

19:30ean, Joxe Arregik berbaldia "Jesusen bari ona XXI. menderako" Parrokiako lokaletan. Eleizaren Garizumako egitarauaren barruan.

## IRAGARKI LABURRAK

**SALDU****SALTZEAN DOT**

Egurrezko sehaska barri-barria saltzean dot, "Cune" markakoa, 150 eurotan, koltxoia doban. Interesatuak 665 722 575 telefonora deitu.

**SALTZEAN DOT**

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefonoa 635 007 632.

**LAN ESKEINTZA****BEHAR BILA**

Goizetan behar egiteko prest nago. interesatuak deitu 676 370 409 (Maite).

**KLASEAK EMOTEN DIRA**

Klase partikularrak emoten dodaz maila guztietan, matematika, fisika, marrazketa teknika, eta abar. Ikasketa teknikoak egitera doazen ikasleak prestetan dodaz. Deitu 605 746 487 telefonora.

**ESTETIZISTEA BEHAR DA**

Igorreko zentro estetiko baterako

estetizistea behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

**TABERNARI BILA**

Asteburuetan kamareru lez lan egiteko persona euskalduna behar dogu. Interesdunak apuntau Axular Kultur Elkarte tabernan edo deitu 94 673 70 92 telefonora.

**EROSI****EROSTEN DOT**

Umeak paseatzeko antxinako karroen bila gabiz. Atera hauts artean gordeta eta ahaztuta daukazuen karro hori, prezioa ipini eta deitu 646 597 501 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doan dira.**

**Begitu-lagunen txokoa****Zenbaki honetako saridunak:**

1

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera martiaren 19ko sanjoseetako bertso saiorako.**


Miren Garbiñe Etxebarria (Lemoa)  
Eneritz Atutxa (Lemoa)



2

**Karrantzako Txaro Sagardotegiak emondako bazkaria lau lagunentzako.**

Iñaki Larrakoetxea (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.



# Egipto

Zeanuriko bigarren zikloko ikasleak, 2. hiruhilabetean, Egiptori buruzko proiektua egin dogu.

Xabier B, Eukeni, Garikoitz, Naia, Ane, Ines, Lander, Alaitz, Sara, Beñat, Sarai, Goiuri, Unai, Ainhize, Laura, Xabier P, Mikel U, Iruñe, Catalin, Imanol, Inge, Mikel S, Cristhian, Garazi eta Leire

Gauza asko ikasi doguz; halan hola, Egipto Afrikako ipar-ekialdean dagoan lurralde bat dala. Hango uriburua El Cairo da eta Nilo ibaia da haren oparia. Egiptoko beste uririk garrantzitsu bat be badago: Alexandria.

Egiptoko lurralde gehiena basamortua da, baina Nilo ibaiaren inguruko lurrak oso onak dira nekazaritzarako Nilo ibaiaren uriolai esker. Urtero Nilo ibaiak uriolak izaten ditu uda partean, Etiopiako mendietako edurra urtu egiten dalako. Uriolak gertatzen direnean, inguruko lurrak lupetzez estaltzen dira. Urruneko lurrak ureztatzeke ubideak egiten zituen eta xadufa erabiltzen eben.

Faraoiak Egiptoko agintariak ziran eta jentek jainkotzat hartzen zituan. Faraoiaren artean Tutankhamon zan ospetsuena, nahiz eta 19

urtegar hil. Erreginen artean Neferiti ederra zalako izan zan ezaguna eta Cleopatra azken erregina izan zalako.

Ehundaka jainko eta jainkosa zituen eta haren artean ezagunenak: Ra, Anubis, Horus, Thot, Isis, Mut eta abar ziran.

Gaia amaitzeko Egiptoko maketa egin dogu, argazkia begiratu: polita da, ezta?

"Jainko eta jainkosen artean ezagunenak: Ra, Anubis, Thot, Isis, Mut eta abar ziran"



3. eta 4. mailako ikasleak egindako Egiptoko maketa.



Maketa aurrez aurre begiratu.

**OPEL**

**Ibaigane, S. Coop. Ltda.**

Estazioa, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Telf: 631 33 30 - 631 31 31  
Fax: 631 36 15

tel: 94 631 60 06 • email: info@aramotz.com

**ARA OTZ**

Landareen O Jantzen!

Puerto Ugarana 2 de - ADRI Dima - Ibaigane www.aramotz.com

**bbk**

**BATZ**

BATZ, S. KOOP.  
Tomasa auzoa, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,  
euskeraz eginez

Enbatareko Batzuen gaitur

**INDU HONDORRON**

**PINTURA TAILERRA**

**areatza**

pintura y decoración, s.l.

Pintura lanak  
Goi mailako dekorazioa  
Industrialia  
Fatxadak  
Paperezatzea

eskatu aurrekontua konpromiso barik

Tailerra 94 426 16 58  
☎ 639 769 780 - 629 435 895

**BASAURI**

**RUGBY TABERNA**

- Egin zaitez bazkide!
- 09:30etik zabalik
- Asteburretan pintxo bereziak

**ARRATIKO ZEKORRAK**

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**Gure Ikastetxeak**

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola

- Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoñe
- Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
- Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoñe
- Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza, Baxilegiak, Hezkuntza zikloak

**mugarri**

diseinu integrala

proiektuak eta diseinua  
obrak eta erreformak  
dekorazioa eta altzariak  
obra zuzendaritza  
kudeaketa integrala

Garbe, 2 • 48140 IGORRE  
tlfnoa/faxa 94 631 51 03  
mugarri@mugarriarkitektura.com  
www.mugarriarkitektura.com

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igoñeko Industriales, Pab. 07  
Tel/Fax 94 673 62 76  
899 736 516  
48140 Igoñe Bizkaia

## KONTXA LANCHARES

**"Egitura baten baino gehiago asanbladetan egotea gustau jata beti"**

Kontxa Lanchares Blanco Areatzara biziten etorri zan orain dala 22 urte. Sano ezaguna da Arratian, batez be, presoan aldeko mobimentuaren inguruan eta sindikalismoan egiten dauan beharragaitik. Mendizalea, futbolzalea eta feminista be badala dino Areatzakoak.

## Erredakzioa

**Kontxa, zelan definituten dozu zeure burua?**

Andra sindikalista eta feminista moduan, herri honen independentziaren alde eta preso eta errepresaliatuen eskubideen alde burrukatzen dauana.

Aprobetxau gura dot, jenteari gogorarazteako IKEn dispersioaren ganeko erakusketa interresgarria dagoala.

**Zein izan da zure ibilbide sindikala?**

Sindikalismoan 15 urte nituanetik nago, baina 25 urte bete arte ez nintzan sindikatu baten afiliatu. Gero LABen afiliatu nintzan. Beti ibili naz ezker abertzalearen inguruan, enpresa komiteetan, asanbladetan... Egitura baten baino gehiago asanbladetan egotea gustau jata beti.

**Sindikalismoa esparru latza****da emakume feministentzat.**

Nik uste dot sindikalismoan emakumeok geure burua zoriondu behar dogula. Sindikalismoa gizonak zuzendutako mobimentua da. Baina Arratian eta Euskal Herrian, androk sartu egin gara sindikalismoan eta lortu diran hainbat eskubide sindikatuak androi esker da. Kontziliazioa, berbarako. Ez dot esan gura burruka horreek ez dabezala gizonak egin, baina adon lehentasuna izan da.

Eta etxeko langileen egoera andra sindikalisto esker dago gai hau agendan. Langile honeen eskubideak errekonozidu barik jarraituten dabe eta gai hau kalean badago, da emakume sindikalistok burruka hori izan dogulako da. **Independentziaren eta presoan aldeko zeure burrukari jagokonean, zelan ikusten dozu momentu honetako**

**egoerea?**

Esan beharra daukat azkenengo atxiloketa guztietan torturak salatu dirala. Azkenengo honeetan emakume bat torturatu eta bortxatu egin dabe.

Nik mobimentuari begira, uste dot pakea egon behar dauala, baina manifestazioetan esaten

**Kontxak Athletic-eko****bazkide izateari itxi****etsutan Athletic-eko****neskak urte bitan****kopea irabazi eta****errekonozimentu eza****ikusit ebanean**

dogun moduan "Amnistiarik gabe, pakerik ez". Dana dala, oraingo pakearen aukerakaz danok gagoz ilusionauta.

**Burgosko Menan jaiotako eta Sondikan hazi zinan...**

Bai. Sondikan emon neban gaztaro osoa. Eta C.D. Sondika futbol taldeko jokalaria izan nintzan hiru urtez.

**Ekipo horren aurka jokatzen eben Soberano Arratiako taldekoak.**

Bai. 16 urtetik 19 urtera ibili nintzan futboleko eta Arratiaren kontra be jokatu neban.

Arratian nesken futbola galdu

ez izanak hunkitzen nau. Arratian nesken ekipoa desagertu egin zan denporaldi luze baten eta orain dala 5 bat urte birsortu zan eta neska honek sano futbolari onak dira. Oso ondo dabiz.

**Eta Sondika futbol taldea zelan dabil?**

Sondika futbol taldea ez da inoiz desagertu eta hortik Athletic-era pasau diran jokalaria onak urten dira. Ni Athletic-eko bazkide nintzan baina bazkide itxi neban urte bi segiduan neskak kopea lortu ebenean eta neska ez eutsenean errekonozidu, gizonai kopea lortu barik errekonozidu eutseena.



# 15

urte  
zugaz

orain ezkur  
Zornotzan be  
Gudari kalea 13

## ezkuroinetakoak

goi mailako marketako oinetakoak

NEREA IRUARRIZAGA URRESTI

Lehendakari Agirre 14 · Igorre · 94 673 62 24

**Balneario Areatza**  
Grupo Sasoide  
*Areatza*

**Hesperia Areatza**  
Hotel Balneario

## ESKEINTZA BEREZIA 60 URTETIK GORAKOENTZAT

AREATZAKO ITURBURU ZIRKUITUA **9€** personako

---

ITURBURU ZIRKUITUA + GORPUTZ ESTALKETA BUZTINEZ **15€** personako

---

ZIRKUITUA + GOSARIA\* EDO MERIENDEA\*  
\*(KAFAA + OPILA EDO PINTXOA) **12€** personako

---

FISIOTERAPIA SAIOA **22€** (30 min.)

% 35eko deskontua tratamendu guztietan eta estetikan.  
Eskeintza asteleheneratik eguenera, bagitak 30 arte, Aste Santuan izan ezik  
Prezioetan BEZ SARTUTA dago

Erreserbak egiteko: 94 657 27 05 edo 94 657 54 50  
Beharrezkoak dira txanoa, txankletak eta bainujantzia